

Sartu Ikasgunea plataforman posta elektronikoa eta pasahitza idatzita.

Lehen aldia bada, izena eman beharko duzu NA/AIZ (Atzerriarren Identifikazio Zenbakia), egoitza baimena edo HNA (Hezkuntza Nortasun Agiria) erabilita. Izen ematea egin dezakete adinez nagusia diren ikasleek, edota ikasle adingabeen tutoreek.

Zure kontuan sartu zara, zure profilean zaude



Administrazio-prozesuak eta laguntzak > Onarpen eskaerak

 **Hasiera**

 **Aldatu datuak**

 **Administrazio-prozesuak eta laguntzak**

Sarbide Proben eskaera eta lehiaketak

Onarpen eskaerak

Bekak

Ebazpenak

 **Espediente akademikoa**

 **Jakinarazpenak**


“Administrazio prozesuak eta laguntzak” aukeratu

“Onarpen eskaerak” aukeratu

Menu urdinean agertzen diren ikasketetatik **eskaintza osoa** aukeratu



Jarraian, eskabidea bete norberaren datuak sartuta “datu orokorrak” erlaitzean.



Eskatutako ikasketa bakoitzeko ilara bana idatziko da. Aukeratutako zikloaz gain, hautatu beharko da (aukerak agertuz gero), txanda (goizez edo arratsaldez), kurtsoa (1.), eredua (D-euskara, B-mixtoa, A-gaztelania) eta eleaniztuna ala ez.

Datu guztiak sartu ondoren, sakatu “intro/onartu”, eta eskaera osatuta geratuko da (urdinez). Nahi adina ikasketa idatz daitezke. Ordenatuta geratuko dira lehentasunen arabera. Hurrenkera alda daiteke lerroa aukeratuta, eta gora eta behera erabilia ezkerreko gezien laguntzaz.

Erlaitz honetan sistemak eskatutako dokumentazioa igo behar da, eskaneatuta;
SALBUETSITA agertuz gero, horrek esan nahi du dokumentazioa hezkuntza sailaren esku dagoela dagoeneko, eta ez dagoela igo beharrik.
Ziklorako sarbidea ematen duten ikasketak egiten ari bada, atal hau hutsik geratuko da zuzenean igoko baita, ikastetxeek aktak itxi ahala (ekainaren 30a aurretik).

Datu OrokorrakEskatutako ikasketakBaremazioa / Dokumentuak

Korrespondentzia hizkuntza: Euskara

Dokumentazioa

Dokumentua	Fitxategia	Salbuetsia	Aurkeztuta	Balioztatu
(*) NAN, AIZ, Pasaporte edo beste nortasun agiriaren fotokopia		☒	☐	Ez balioztatuta☐ Balioztatuta☒ Zuzentzeko zain☐

Baremaziorako datuak

Sarbide mota

Ziklo bereko aurreko mati

Baremazio irizpidea	Balorea	Dokumentua	Fitxategia	Salbuetsia	Aurkeztuta	Balioztatu
Baremazio irizpideak: OROKORRAK						
EMko LHko Titulua	LOE-Plan					
GMko nota	5,64	(*) Goi mailako ikasketen espedientearen fotokopia		☒	☐	Ez balioztatuta☐ Balioztatuta☒ Zuzentzeko zain☐

GordeItzuli

Inprimatu

OSO GARRANTZITSUA, eskaera bete ostean, sakatu BIDALI, betiere maiatzaren 23a baino lehen, bestela prozesutik kanpo geratuko da eta.

Eskaeraren egoera berrikusi behar da:

- Eskaera BIDALTZEKO ZAIN. Eskaera eginda dago, baina “Bidali” tekla sakatu gabe dago oraindik.
- Eskaera BIDLITA/AZTERTZEN. Lehen aukerako ikastetxera bidali da eskaera, eta aztertzen ari da.
- Eskaera DOKUMENTUAK EKARTZEKO ZAIN. Eskaera bidali da, baina oraindik ez dira kargatu baremaziorako datuak (ikasketa espedienteko nota).
 - Garai berean, ziklorako sarbidea ematen duten ikasketak egiten ari bazara, nota zuzenean kargatuko zaizu, ikastetxeak aktak itxi ondoren.
 - EAetik kanpoko ikastetxe batean ikasten ari bazara, ekainaren 30a arteko epea daukazu dokumentuak idazkaritzan aurkezteko.
- Eskaera OSATUA. Eskaera osatuta dago eta onarpen prozesuan sartuko da.

Ekainaren 30ean, eskaera GUZTIEK beren egoeran OSATUA adierazi beharko dute baremazio-onarpen prozesuan sartzeko.